

## Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




<b>akitu</b> nekatu	Nekatuta nengoen, barrutik <b>akituta</b> . Kristalei ekin nien, goitik behera.	102
<b>alanbrea pasatu</b> zorua garbitu	Nik burua apartatu eta, lehenengo, <b>alanbrea pasatzen</b> nuen; gero, argizaria ematen nion egongela osoari; eskuila pasatzen nuen ondoren, eta trapuaz...	14
<b>aldaba</b> atea jotzeko tresna metalikoa	Gainean gurutze santua zizelatu zuen <b>aldabari</b> hiru kolpe eman nizkion amak esan bezala, eta zain geratu nintzen, opila eskuan.	13
<b>alondegi</b> jangaiak salerosteko lokala	Olaetako udaletxeko <b>alondegian</b> giltzapetu zituzten, eta Maite bisitan joan zitzaion.	83
<b>anabasa</b> nahastea	...hegoekin elkarri talka egiten baitzuten etengabe, eta nahaspila zuri bat, txilio- <b>anabasa</b> bat sortzen zuten dorrearen inguruan.	77
<b>antxirri</b> oin bakarrean ibili saltoka (?)	Bere kasa ikasi zian txikitan moila zaharrean, <b>antxirrian</b> . Jesus! Makina bat aldiz ikusi ninan umea zenean...	75
<b>antxolan</b> antxoak prestatzeko lana	Igandeetan ere fabrikara joaten baikin gu: <b>antxolanera</b> .	21
<b>arre</b> nabarra, grisa	Olatu <b>arre</b> bat, bi astean ile-apaindegitik pasa gabea.	46
<b>arru</b>	Esaten zuen Tomaxa sorginaren <b>arrua</b> zela, begizkoa bota ziola azken haurdunaldian, laugarren hilabetean, sabelean igarri ziola.	11
<b>artega</b> urduri, egonezinez	Gainera, ez genuen ziur jakiten zenbat itxaron behar izango genuen, eta <b>artega</b> begiratzen genion arkupeetatik.	24
<b>aurren</b> lehenbizikoa	...eta beren aukietan eseri dira, makuluak leihorearen ondoko txokoaren kontra utzita: <b>aurrenak</b> dira, ez dago beste makularik leiho ondoko bazterrean.	44
<b>baldinbaitere</b> baldinba, seguru ezetz	Buruari atsedean hartzen utzi behar zenioke. Bonbari tiratuko zenion, <b>baldinbaitere!</b>	56
<b>barreiatu</b> hedatu, zabaldu	Italiako eskusoinu baten melodia <b>barreiatu</b> da gozotegian.	51
<b>barrenik ez eduki</b> adore falta izan	...umemokoak bagina bezala, heriotzari aurpegira begiratzeko <b>barrenik ez daukagulako</b> .	90
<b>bebarru</b> beheko solairua, entreplanta	Gure etxeko <b>bebarruak</b> bi zati zituen: alde batean aitaren bizartegia zegoen, eta han gizonak baino ez ziren sartzen...	57
<b>begirasun</b> begikera	<b>Begirasun</b> zorrotza egin dio aitari, kirioak dantzan jartzen dizkio besteri egindako galderak erantzuteko duen joerak.	39
<b>begizkoa bota</b> madarikatu bezala	Esaten zuen Tomaxa sorginaren arrua zela, <b>begizkoa bota</b> ziola azken haurdunaldian, laugarren hilabetean, sabelean igarri ziola.	11
<b>behatz</b> (oinetako) atzamarra	Ospelduta neuzkan <b>behatzak</b> .	103
<b>behazun</b> gibekeko ixurkia	Ederki konturatu da Ixabelen mugimenduarekin, eta <b>behazuna</b> probatu du eztarrian.	50
<b>behin honetara ezker</b> puntu horretara iritsi bagara...	...zigarro bat eta xorta bat patxaran hartuko ditut egunero, <b>behin honetara ezker</b> ez nau biriketako minbiziak hilko...	45
<b>belaki</b> esponja	Ezkerreko besoa gora jaso eta <b>belakiarekin</b> igurtzi dizkio eskua eta beso-barrena, eskumuturretik galtzarberaino.	38
<b>bera-bera egin</b> erabat bigundu	Eltzari txikiak hiru balde handitan uzten genituen igeri larunbat goizetan eta hala egoten ziren hogeita lau orduz <b>bera-bera egin</b> arte.	74
<b>berakatz</b> baratxuria	...gizonarengana hurbildu eta <i>sar ezak patrikan</i> esan dio, poltsikotik atera duen <b>berakatz</b> atala emanez.	48
<b>beratu</b> uretari jarri biguntzeko	Banator babesera! izan ziren Eutimiok esan zizkidan estreinako bi hitzak eta, <b>beratzen</b> jartzeko garbantzu gaintetik bista apartatuta, baietz egin nion...	73
<b>bere kasa</b> berez, berak bakarrik	<b>Bere kasa</b> ikasi zian txikitan moila zaharrean, antxirrian. Jesus! Makina bat aldiz ikusi ninan umea zenean...	75




<b>berniz</b> oholari emateko isurkia	...mandatuak egiten ibiltzen zen moilan: honi <b>berniza</b> ekarri, hari amuak erosi, ondokoari garnata prestatu, atzekoaren emazteari enkargua eman...	75
<b>betikara</b> begi-kliska	...eta azpian harrapatzen zutena itsasoaren sabelera eramaten zuten <b>betikara</b> bakarrean.	22
<b>bilinbolaka</b> itzulipurdika	...atariko eskaileren gainetik airean irten eta <b>bilinbolaka</b> joan zen aulki zaharra aldapan behera...	97
<b>branka</b> itsasontzien aurreko aldea	Izurdeak ere ikusi zituela, itsasontziaren <b>brankan</b> zein uberan joaten zirela batzuetan.	84
<b>burko</b> almohada	Mesanotxeko arrosarioa hartu eta <b>burkoaren</b> azpian gordetzen nuen halakoetan.	13
<b>buruak erauzi</b> alteratu, onetik ateratzen	...ameskeriatan aritzen ginen hamar orduz, <b>buruak erauzi</b> eta erauzi, irrikak aletuz antxoa-buru bakoitzean.	24
<b>diosal</b> agurra	Ixabelaren <b>diosalari</b> ez-entzun egin eta barrura sartu da Eutimio, emaztea atean utzita.	43
<b>ebatzi</b> erabakia hartu	Eutimiok, burua ezker-eskuin mugituz, <i>zahartzen ari gara!</i> <b>ebatzi</b> du.	111
<b>egoskor</b> burugorra	—Baina, baina... zer esan dizut? Zertan ari zara? <b>Egoskorra</b> zara, gero! Beti nahi duzuna egin behar!	38
<b>egurrak eman</b> egurra puztu, handitu	... <b>egurrak eman</b> eta oholen arteko pitzadurak itxi zitezten, gero iztupaz errematatu eta pintaketa egiteko...	35
<b>ehun</b> oihala	...ez ziguten-eta soinekoekin uretan luze egoten uzten: gatzak hondatu egiten omen zuen <b>ehuna</b> .	33
<b>eltzari</b> eltzekaria, lekaria	<b>Eltzari</b> txikiak hiru balde handitan uzten genituen igeri larunbat goizetan...	73
<b>errekete</b> Francoren soldadu faxistak	Herrian, <b>erreketeek</b> bortxatu nindutela zabaldu zen lehenengo. Etxean zigor modura josten nituen jertseak soldaduei eramatera joaten nintzenetan...	9
<b>erreskadan</b> ilaran, errenkadan, lerroan	Martiñak eta Teresak begirada jaitsi dute <b>erreskadan</b> , burua makurtzean olatu triste bat osatzeraino.	46
<b>errezel</b> estalki, gortina	Gustatu egiten zitzaidan amari <b>errezela</b> loratuen artean begiratzea, argizaria emateko trapua eskuan nuela...	12
<b>esku-ahur</b> eskuaren barruko aldea	Bekokia laztandu zidan <b>esku-ahurrekin</b> .	106
<b>eskuila</b> zurdazko garbitzeko tresna, <i>cep</i>	...lehenengo, alanbrea pasatzen nuen; gero, argizaria ematen nion egongela osoari; <b>eskuila</b> pasatzen nuen ondoren, eta trapuaz igurzten, azkenik.	14
<b>espartin</b> abarketa	Hezur-junturek goxo-goxo hartzen zizkieten hainbestetan madarikatzen zituen elizbideko galtzadarriak, eta <b>espartinak</b> eskuan hartuta, oinutsik jaisten zen...	11
<b>estreinako</b> lehenengo aldia	Igande batean gertatu zen <b>estreinakoz</b> . Leiho ertzean nengoen kalera begira...	71
<b>etxidamu</b> biharko egunaren hurrengoa	Astelehenetan ixten baitu Ixabelek gozotegia. Baina, <b>etxidamu</b> ostiralaren bezpera izagatik, ireki egin du gaur...	45
<b>ezkata</b> arrainen azaleko atala	...doinua ezagututa, abesteari ekiten zioten berriro, <b>ezkatek</b> lika-lika egindako blusa zaharrekin.	16
<b>ezkila</b> kanpaia	Larunbata zen, eta <b>ezkilak</b> dilindan hasi ziren guretzat, hamabi kanpaikada bata bestaren segidan.	73
<b>fiuka</b> txistuka (onomat.)	<i>Eta gero garbantzuak fiuka hasi omen direal, eta sukaldera korrika...</i>	68
<b>gajo</b> gizajoa, koitadua	—Eta zer egin behar du horko emakume <b>gajo</b> horrek?	110
<b>galgatze-hots</b> balaztak sakatzean ateratako zarata	Handik pixka batera azaltzen dit -ama zaharrari hizpidea eman behar baitzaio lantzean behin- auto baten <b>galgatze-hotsak</b> larritu duela, eta gero barrura...	68




<b>galtzarbe</b> besapea	Ezkerreko besoa gora jaso eta belakiarekin igurtzi dizkio eskua eta beso-barrena, eskumuturretik <b>galtzarberaino</b> .	38
<b>garnata</b> amuzkia, arrainetarako beita	...mandatuak egiten ibiltzen zen moilan: honi berniza ekarri, hari amuak erosi, ondokoari <b>garnata</b> prestatu, atzekoaren emazteari enkargua eman...	75
<b>garondo</b> buruaren atzealdea	Brotxa txikia hartuta, aparra ematen hasi zitzaidan Martiñaren aita, <b>garondotik</b> gora.	104
<b>gila</b> untzietako azpialdeko pieza	Eutimiok <b>gilaz</b> gora iraulita zeuden txalupak erabiltzen zituen arnasa hartzeko.	35
<b>harraska</b> sukaldeko konketa, sukaltarria	Txorrota ireki du <b>harraskako</b> kikarak garbitzeko...	48
<b>harrotu</b> lazu, tentetu bezala	Gogorregi ari zaio, eta Martiñak badaki azala <b>harrotu</b> egingo zaiola horrela...	39
<b>hostopil</b> hostorez eginiko opila	Hiru tximista luze, <b>hostopil</b> pare bat, merengeak, bonbak..., eta besteak zure aukeran, dozena bat egin arte.	19
<b>hurrupa</b> zurrutada, tragoa	...lasaiago hartzen du kafea Eulalik, <b>hurrupa</b> bakoitzean bizitza apur bat luzatuko balitzaio bezala...	46
<b>igurtzi</b> indarrez eskua igaro azaletik	—Ondo <b>igurtzi</b> ezan, Teresa!	11
<b>ihar</b> haragi gutxikoa, hezurtsua	—Eutimio, non duzu eraztuna? —esan du, begirada belakiari heltzen dion esku <b>iharretik</b> apartatu gabe.	39
<b>imintzio</b> aierua, keinua	...aurpegiz aurpegi jarri eta berriro galdetu dio ezpaineekin <b>imintzio</b> nabarmenak eginez-. Ondo zaude?	56
<b>inbutua egin</b> onila, tutu forma eman	Beste guztiak egunkari-orri baten gainean bildu, <b>inbutua egin</b> , eta zakura.	61
<b>iztupa</b> lihozko hariz egindako mataza	...egurrak eman eta oholen arteko pitzadurak itxi zitezten, gero <b>iztupaz</b> errematatu eta pintaketa egiteko...	35
<b>izu-laborri</b> beldur ikaragarria	Orduero, kanpaiak dantzan hasten zirenean, <b>izu-laborriak</b> hartzen zituen kresalezko hegaztiak eta, ikarak jota, hegoak astinduz...	76
<b>jela-fabrika</b> izotz-lantegia	Barkuetatik, <b>jela-fabrikatik</b> edo moila zaharretik plastikozko tutuak lapurtzen genituen lana amaitzerako, eta paperezko kukurutxoak egiten genituen gero.	69
<b>jenero</b> salgaia	<b>Jenero</b> guztia zaku handitan iristen zitzaigun orduan, ez orain bezala paketetxoetan banatuta...	60
<b>josketan</b> josteko lanean	Kalez kaleko gitarra-jotzaileei erositako kantak abesten zituzten <b>josketan</b> zebiltzan bitartea.	15
<b>juanikote</b> behatz lodiko hantura	...bigarren behatza behatz lodia baino askoz ere luzeagoa zuen, zentimetro bat luzeagoa gutxienez, eta <b>juanikotea</b> minbera oso.	11
<b>kanila</b> txorrota	Eutimioren zain dagoela, <b>kanilatik</b> bi segundoan behin erortzen diren ur-tantek bere oinpeko putzuan sortzen dituzten marrazkiei begira jarri da.	37
<b>kankailu</b> handikotea, dorpe antzekoa	Soldadu altuak begietara begiratu zion, eta barrez lehertzen hasi ziren biak, lehenengo <b>kankailua</b> eta gero txikia.	90
<b>karkailaka hasi</b> barre-algaraka hasi	...eta, beren txistearen zorrotzasunak harrituta bezala, <b>karkailaka hasten</b> ziren, fusilak sorbaldan dantzan.	91
<b>karreto</b> garraioan	...baina mutil gazte haiek, mahukak ukondoetaraino jasota, moilatik fabrikaraino ekartzen zizkiguten antxoak arrain <b>karreto</b> , guk burua kentzeko.	23
<b>kataloxa</b> urrunetik ikusteko tresna	— Ezta <b>kataloxekin</b> ere. Beste kaferik nahi duzue?	20
<b>kateorraz</b> lotzeko balio duen orratza	Bainujantzirik ez genuen izaten, eta soinekoa izter artean <b>kateorraz</b> batekin lotzen genuen gure neska-lotsariak ez dakit noren bistatik estaltzeko.	21
<b>katigatu</b> trabatu	Ni haren ile beltzari begira gelditu nintzen, kizkurretan <b>katigatuta</b> , ileak ere barre egiten baitzion Teresari begiekin barre egiten zuenean.	64



<b>kikara</b> katilutxo	Txorrota ireki du harraskako <b>kikarak</b> garbitzeko...	48
<b>kilima</b> kili-kilia	...tripan <b>kilima</b> eraiten zigun eta ezin izaten genion barre txikiari eutsi.	23
<b>kirioak dantzan jarri</b> urduri jarri, bere onetik atera	Begirasun zorrotza egin dio aitari, <b>kirioak dantzan jartzen</b> dizkio besteri egindako galderak erantzuteko duen joerak.	39
<b>kirrinka</b> soinu bizia ( <i>chirrio</i> )	<i>Garbigailu bat kirrinka eta telebista zaharra marmarka.</i>	70
<b>kizkur</b> kiribildua	Ni haren ile beltzari begira gelditu nintzen, <b>kizkurretan</b> katigatuta, ileak ere barre egiten baitzion Teresari begiekin barre egiten zuenean.	64
<b>koipea eman</b> gauza politak esan limurtzeko	—Orain ere bahabil <b>koipea ematen!</b> Ikusiko dun harrapatzen bahaut, tximak errotik aterako dizkinat.	13
<b>kokoriko</b> oinen gainean makurtuta	...eta Sekundinak behin baiño gehiagotan harrapatu zuen eliz atzean gona goraino jasota, <b>kokoriko</b> .	24
<b>kresal</b> itsas aldeko usain berezia	Orduero, kanpaiak dantzan hasten zirenean, izu-laborriak hartzen zituen <b>kresalezko</b> hegaztiak eta, ikarak jota, hegoak astinduz...	76
<b>lainezatu</b> haserretu, muturtu	Barre egiten zuen errelaren jabeak, eta burua jirutzen ezker-eskuin, gaztetxoak, <b>lainezatuta</b> , burua galdu zuelakoan.	34
<b>lakartu</b> ahotsa marrantatu	—Ondo, bai. Eztatia, pixka bat <b>lakartuta</b> . Ezin dut ondo irentsi.	121
<b>lantzean behin</b> noizean behin	Handik pixka batera azaltzen dit -ama zaharrari hizpidea eman behar baitzaio <b>lantzean behin</b> - auto baten galgatze-hotsak larritu duela, eta gero barrura...	68
<b>lapak biltzera joan</b> antzarak ferratzera bidali	Hoa <b>lapak bilatzera!</b>	94
<b>lardaskan ibili</b> pikatzen, mokadutxoak jaten	Etxean zigor modura josten nituen jertseak soldaduei eramatera joaten nintzenetan <b>lardaskan ibili</b> ohi nintzela, gero.	9
<b>lauso</b> nahasia, difuminatua	...sabelean daramatenari batere aurpegirik eman gabe, etorkizun <b>lauso</b> bati maite-maite egiteko gai.	116
<b>lika-lika</b> lingirdatsu, mukiz betea bezala	...doinua ezagututa, abesteari ekiten zioten berriro, ezkatek <b>lika-lika</b> egindako blusa zaharrekin.	16
<b>lizunki</b> modu likitsean, haragikoian	Ez dut sekula ahaztuko hitz hura entzunda sentitu nuen zirrara, hitzak berak <b>lizunki</b> ukitu banindu bezala.	64
<b>loki</b> belarrien aurreko aldea buruan	Garondoko hotza belarrien atzealdera zabaldu zen gero; <b>lokietara</b> , ondoren...	106
<b>lubaki</b> trintxera	Dena zen gerra. Dena zen <b>lubakiaren</b> alde bat ala bestea. Dena odola eta izerdia.	100
<b>mahuka</b> arropetan besoa sartzeko tokia	...Goikoetxeraino igotzea, baina mutil gazte haiek, <b>mahukak</b> ukondoetaraino jasota, moilatik fabrikaraino ekartzen zizkiguten antxoak arrain karreto...	23
<b>makulu</b> herren edo zaurituen euskarria	...eta beren aulkietan eseri dira, <b>makuluak</b> leihoaren ondoko txokoaren kontra utzita:aurrenak dira, ez dago beste makularik leiho ondoko bazterrean.	44
<b>mandatuak egin</b> errekadua, agindutakoa	...laster hasiko omen zen itsasoan, eta, bitartean, <b>mandatuak egiten</b> ibiltzen zen moilan...	75
<b>maripertxenta</b> beti dotore doan neska	...hiru-lau familia beren alaba ilehoriekin, eta guk inbidiaz begiratzen genien neska <b>maripertxenta</b> haiei.	62
<b>maskuri</b> puxika, txiz biltokia	...gaixotasun larri bat zuela esan zion, eta txurreroari begira jarraituz gero, <b>maskuria</b> lehertuta hilko zela, egun batetik bestera lehertuko zitzaioela...	25
<b>moila</b> kaia	...eta espartinak eskuan hartuta, oinutsik jaisten zen Artzapera, <b>moila</b> gaineko harrizko petrileran.	11
<b>motots</b> ile-adatsa bilduta dagoenean	Kalean, burua jirutzen zuten <b>mototsa</b> estu-estu lotuta eramaten zuten neska guztiek, <i>eta zer ile polita!</i> esaten zidaten paretik igarotzean.	12



<b>neska-lotsari</b> emakumeen sexua	Bainujantzirik ez genuen izaten, eta soinekoa izter artean kateoratz batekin lotzen genuen gure <b>neska-lotsariak</b> ez dakit noren bistatik estaltzeko.	21
<b>oihartzun</b> durundia	Ahots iheskor haren <b>oihartzuna</b> punpaka izaten nuen saihetsen artean	79
<b>orban</b> zikin uea	Moilako ura zikina izaten zen oso, baporeen ikatz-galdarek isuritako <b>orbanez</b> betea...	35
<b>orezta</b> peka	Ilehoria nintzela ere amesten nuen, eta <b>orezta</b> argiak nituela, doi-doi gorantz begiratzen zuen sudur txiki baten gainean.	63
<b>ospelduta</b> hotzaren hotzaz gorritua	<b>Ospelduta</b> neuzkan behatzak.	103
<b>paneka</b> arrain mota bat	Eta bazirudien amuetan ere kateatzen zela abestia, moilara iristean <b>panekek</b> eta txitxarroek ahoa zabalik izaten baitzuten...	16
<b>piko</b> aldapatsua	Kantoietakoa aldapa <b>pikoe</b> kin eta galtzadarrak deabruarekin ez zen erraza izango antxoaz beteriko gurdi haiek Goikoetxeraino igotzea...	23
<b>pipi</b> sitsa, zerrena, <i>karkoma</i>	Belarri fina zuen herrenak, bai, kale-zakurrek baino hobea, baina egurrezko hankatik sartutako <b>pipiren</b> batek barrua jana zion ordurako.	107
<b>pitzadura</b> zirrikitua, arraila	...egurrak eman eta oholen arteko <b>pitzadurak</b> itxi zitezten, gero iztupaz errematatu eta pintaketa egiteko...	35
<b>punpaka</b> saltoka, jauzika	Ahots iheskor haren oihartzuna <b>punpaka</b> izaten nuen saihetsen artean	79
<b>sama</b> eztarria	Ezta aiztoa <b>saman</b> jarrita lapurreta egin nahi baliote ere! Sakelakoa, jakina.	68
<b>sano</b> zeharo, guztiz	...eta paseoan doazela hizketan hasten zaionean <b>sano</b> harritzen da.	38
<b>sarri</b> ugaria	Sorbaldetan marrazkiak egiten zizkidan ile beltz kizkurra neukan orduan, distiratsua eta <b>sarria</b> eta, neska gehienek ez bezala, solte eramaten nuen nik.	12
<b>sekula santako</b> betiko	Nire beharra izango zuela <b>sekula santako</b> ? Zer uste nuen...	115
<b>sesio</b> eztabaida, liskarra	...semearen aurrean ez dute <b>sesioan</b> hasi behar, betiko marmararekin hasten baita bestela.	39
<b>seta</b> burugogorkeria	Baietz egiten nion buruarekin, aitzak nire izena behin eta berriz errepikatzeko <b>seta</b> ezin ulertuta.	33
<b>sorbatz</b> aiztoen ahoa	Zirri-zarra <b>sorbatza</b> zorroztu bitartean abestu egiten zuten gizonezkoek, euskara eta hala moduzko gaztelania nahasten zituztela...	14
<b>sorgortu</b> sentimenak galarazi	Baina harrigarria da pertsonok <b>sorgortzeko</b> daukagun gaitasuna: nik hiru urtean ez nuen ezer entzun.	99
<b>tarrat</b> txaplatak jarri arropa urratuan	...huraxe jantzi behar izaten zen <b>tarrataz</b> josi eta ehuna usteldu arte; bada, senarrarekin berdin.	61
<b>tatarraz josi</b> txaplata edo adabakiarekin (?)	Soineko batekin aspertuz gero ere, huraxe jantzi behar izaten zen <b>tatarraz josi</b> eta ehuna usteldu arte.	61
<b>tiradera</b> kaxoia	Ixabelek <i>bai, bai</i> esan eta, presaka eskukada bat azukre-xorro atera du kafe-makinaren azpiko <b>tiraderatik</b> .	47
<b>tirain</b> itsasoko uraren mugimendua	Erantzunaren zain gelditu gabe, <i>lasai, niri ere gertatzen zait; tirainagatik da</i> esan dio, eta bere patrikak miatzeari ekin dio, zerbaiten bila.	47
<b>tirri-tarra</b> tiriki-tarraka, astiro, motel	Ari dira, <b>tirri-tarra</b> , zaharrak gozotegira ailegatzen.	45
<b>titare</b> hatzetan jartzen den josteko tresna	Nire begiak Teresaren <b>titaretik</b> apartatu ezinik nengoela, estul-kolpe batekin hartu ninduen...	64
<b>trabes</b> zeharka	Beno batzuek egiten zuten <b>trabes</b> , bai, ni ikusia bainago Kixoneko Fausto alpagatak jokatzeko, baita oinutsik etxera itzultzen ere.	33



<b>txatxu</b> tentela, inuzentea	Beti etxeko txikia izango haizelakoan, ala? Mugitu hadi <b>txatxu</b> hori!	12
<b>txerren</b> deabrua	Infernuko <b>txerrena</b> baino okerragoa zen eta hura.	12
<b>txilio</b> oihu zorrotza	Elizako hare-harrizko dorrea zuritu, eta <b>txilioz</b> betetzen zuten kalatxoriek egunero.	76
<b>txima</b> ile xerloa	—Orain ere bahabil koipea ematen! Ikusiko dun harrapatzen bahaut, <b>tximak</b> errotik aterako dizkinat.	13
<b>txorrotxio</b> txorien txioa, txirulirua	<i>Argi laranjek ozen egiten zuten <b>txorrotxio</b>, birigarroak goizero gure baserri zaharreko gereziondotik egiten zuen bezala.</i>	71
<b>ubera</b> itsasontzien arrastoa, <i>estela</i>	Izurdeak ere ikusi zituela, itsasontziaren brankan zein <b>uberan</b> joaten zirela batzuetan.	84
<b>ukondo</b> ukalondoa	...Goikoetxeraino igotzea, baina mutil gazte haiek, mahukak <b>ukondoetaraino</b> jasota, moilatik fabrikaraino ekartzen zizkiguten antxoak arrain karreto...	23
<b>ur-handitu</b> egurra uretan sartu puzteko	...eta bi gizon pintura poteekin eta trapuekin zihoazen moilarantz, <b>ur-handitzen</b> egondako txalupak pintatzera edo.	81
<b>xextra</b> eztabaida, sesioa	Zurea da erru guztia. Esan nizun bere aurrean <b>xextran</b> ez hasteko -eta danbateko batekin itxi du atea, ama-sembleak lurrunez beteriko bainugelan...	41
<b>zangosagar</b> zangoaren bikiak	...eta beste eskuaz espartinei eta igandeetako gona gorriari eutsiz <b>zangosagarrak</b> airean.	12
<b>zarpail</b> hondatua, zaharkitua	<i>90 urte gona zarpailekin bizi eta gero...</i>	72
<b>zintzilikario</b> eskegita jar daitekeen edozer	Halako tramankuluak modan jarri ziren garaian erosi zuen Ixabelek kanaberazkoa <b>zintzilikario</b> hori Madrilgo rastroan...	19
<b>zirri-zarra</b> zorroztearen onomatopeia	<b>Zirri-zarra</b> sorbatza zorroztu bitartean abestu egiten zuten gizonezkoek, euskara eta hala moduzko gaztelania nahasten zituztela...	14
<b>zirtolari-fama</b> txistek egiteko gaitasuna	Bazuen aitak <b>zirtolari-fama</b> , hitz-jokoak egiten benetan ona ama zen arren.	58
<b>zokomiran</b> kuxkuxean, ikusmiratzen	—Eta armairuetan <b>zokomiran</b> hasten bada?	41
<b>zuzen antxean joan</b> nahiko zuzen	Eulalik ez dio entzun, baina <b>zuzen antxean joan</b> da lagunak dituen mahairaino.	110